

MUTRIKUKO UDALA: HONDAKIN BILKETA SISTEMA HOBETZEKO PARTAIDETZA PROZESUA, 2014

informatu
pentsatu
erabaki

informate
piensa
decide



2.FASEAREN ONDORIOEN TXOSTENA

**HONDAKIN BILKETA SISTEMA DESBERDINAK
EZAGUTU ETA AZTERKETA**

[a]

AURKIBIDEA

1	MAHAI-INGURUA	3
2	SISTEMA BAKOITZAREN INDARGUNEA ETA AHULGUNEA:	8
3	HERRITARREN AZTERKETA	9
4	SORTZAILE BEREZIEN AZTERKETA	12
5	ONDORIOAK	14

Txosten honek "Informatu, pentsatu, erabaki" partaidetza prozesuko 2.faseko eduki eta ondorioak biltzen ditu.

Fase honen helburua bilketa sistema desberdinak aurkeztea eta azaltzea izan da.

2.fase honetan zehar honako topaketak burutu dira herritarrekin.

- Gipuzkoako hondakin bilketa sistema desberdinen inguruko mahai-ingurua
- Herritarrekin sistema desberdinak azaldu eta aztertze lan Saioa
- Hondakin sortzaile bereziekin sistema desberdinak azaldu eta aztertze lan Saioa

1 MAHAI-INGURUA

Mahai-ingurua egun Gipuzkoan martxan dauden hondakin bilketa sistema desberdinak aurkeztu eta ezagutzeko helburuarekin burutu da. Mutrikun zer nahi dugun erabaki aurretik beste herrietako esperientziak ezagutzea erabaki dugu.

Mahai-inguruan honako gonbidatuak izan genituen:

- Ibon Goikoetxea. Usurbilgo ingurumen teknikaria. (4 frakzioak atez ate biltzeko sistema)
- Amaia Usandizaga. Orioko udaleko aparejadorea eta arkitekto teknikoa. (5.edukiontzi borondatezko sistema)
- Oxel Erostarbe. Elgetako alkatea. (Edukiontzi sistema derrigorrezko komunitarioa)
- Orkatz Goenaga. Urola Erdiko mankomunitateko teknikaria. (Bilketa sistema mixtoa)

► **USURBIL:**

Mahai-inguruari hasiera emanaz Ibon Goikoetxea Usurbilgo udaleko ingurumen teknikaria hasi da, Usurbileko esperientzia kontatuaz.

Usurbilen, 2009.urtean hasi ziren 4 hondakin frakzioak atez ate biltzen, errauskailuaren eztabaida indartsua zegoelako eta errauskailua bera Usurbilen muga ipini behar zutelako. Ahalik eta gaikako bilketa emaitza onenak ematen dituen sistema bilatu zuten eta etxe bakoitzak hondakinak biltzeko bere zintzilikarioa dauka.

Usurbilek, 6137 biztanle ditu eta herri guneaz gain, landa gune zabala dauka. Bilketa egiteko 3 kamioi dituzte, Hernani eta Astigarragarekin konpartitzen dituztenak hauek ere atez ateko sistema dutelako. Usurbilen, hondakinak goizez biltzen dira eta binaka banaturiko 6 biltzaile dituzte. Gainera, egunero ez baina ia egunero informatzaile finko bat izaten dute herritarrei azalpenak emateko.

3 larrialdi gune dituzte eta landa gunean bizi direnak larrialdi gune horietara joan behar izaten dute hondakinak botatzera. Hori dela eta, landa guneko biztanleek zabor tasa gutxiago ordaintzen dute, beraiek joaten direlako hondakinak botatzera. 13 auzo konposta gune ere badaude eta auzo konposta egiten dutenek pegatina bat daukate beraien zintzilikarioan konposta egiten dutela jakinarazteko.

2.FASEAREN ONDORIOEN TXOSTENA

Bilketa egunak erabakitzeko orduan, sortzen dutenaren arabera egutegi bat daukate herritarrekin adostutakoa:

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
Organikoa	Ontzi arinak	Papera/ kartoia	Organikoa	Ontzi arinak	Organikoa	Errefusa
Pixoihalak eta konpresak						

Taulan ikusten denez, hondakin sanitarioak deiturikoak ateratzeko aukera dago poltsatxo batean. Ordu-tegiari dagokionez, goizeko 6:30tatik 8:30tara dago ezarrita hondakinak ateratzeko ordua. Ezin bada ordu horretan atera, larrialdi guneak dauzkate txip batez kontrolaturik, norberaren egoeretara egokituz.

Usurbilen enpresek ere hondakin asko sortzen dute eta beraientzako egokituriko egutegi bat adostuta daukate:

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata
7:00-14:30 Organikoa Organico	7:00-10:30 Ontzi Arinak Envases	7:00-14:30 Papera eta Kartoia	7:00-14:30 Errefusa	7:00-10:30 Ontzi Arinak Envases	7:00-14:30 Organikoa Organico
	10:00-14:30 Filma Film		Rechazo	10:30-14:30 Plastiko Nahasketa	
	8:00-13:00 Egurra Madera	Papel Cartón	7:00-14:30 Organikoa Organico	Plast. Mezcla Papera eta Kartoia *Aldez aurretik jakinarazita Papel Cartón *Con previo aviso	

Tasei buruz azaldutakoaren arabera, zabor bilketa garestitu egin da, besteak beste 2 langiletik 6ra igaro direlako, baina diru sarrerak ere handitu egin dira eta 2008. Urteko eta 2012. urteetako defizit ekonomikoa ia ia antzekoa da. Herritarrei dagokienez, gaur egun etxebizitza batek 80 euro inguru ordaintzen ditu urtean, 20 euro 3 hilero.

Aurten ordea, berrikuntza bat jarri dute martxan. Denek ez dituzte 3 hilero 20 euro ordaintzen, kontuan hartzen dute etxean zenbat lagun bizi diren eta igandean errefus ontzia betetzen dutenaren arabera gehiago edo gutxiago ordaintzen dute, errefus kopurua %30 jaistera lortu dutelarik.

Konposta egiten duen edozeini, %40ko hobaria aplikatzen zaio.

Ibonek azaldutakoaren arabera, atez ateko sistemak, gaikako bilketa derrigortu eta kontrol bat eramaten duenez, jendeari gauzak tentuz egitera bultzatzen ditu, ondorioz gaikako bilketaren emaitza oso onak ematen direlarik.

Kostuei buruzko azken datu batzuk emanaz amaitu zuen bere azalpena:

- 2013ko datuak
 - Gastuak (Bilketa+tratamendua+kudeaketa) 733.000 €
 - Diru sarrerak (Tasak+material salmenta): 525.000 €
 - Defizita: 208.000 €, Diru sarrerekin Kostuaren %71,6 finantzatzen da.

► **ORIO:**

Jarraian Amaia Usandizagak hartu zuen hitza Orioko sistemaren berri emateko.

2010.urtean, 5.edukiontzia edota edukiontzi marroia ipini zuen udalak. Hasiera batean 8 edukiontzi marroi ipini zituzten eta modu boluntario batean 500 herritar apuntatu ziren edukiontzi hori erabiltzeko giltza lortzeko. Gaur egun 34 edukiontzi marroi daude eta errefusa biltzeko edukiontziak gutxitu dituzte.

Gaur egun, 2000 pertsonak erabiltzen dute edukiontzi marroia, organikoa biltzeko. Hasieran, organikoa biltzeko poltsak udalak banatzen bazituen ere, gaur egun poltsak bakoitzak ordaindu behar ditu.

Udaletxean, birziklapen tasen ehunekoan ipintzen dituzte eta %39-%44 tartean dabilta. 2003.urteetik, auzo eta auto-konposta bultzatu dute. Auzo konpostarako 4 gune daudelarik eta auto konposta egiten dutenak berriz, 40 bat familia dira. Konpostaren inguruko azalpenak mankomunitateak bultzatu zituen.

Azkenik, elkarte gastronomiko eta jatetxeekin lanean ari dira organiko gehiago biltzen dutelako.

► **ELGETA:**

Elgetako alkatea den, Oxel Erostarbek hartu du hitza jarraian, Elgetan martxan jartzekotan diren sistema berriaren inguruan hitz egiteko.



Orain arteko ohiko sistemak eman dituen azken datuen arabera, 2013.urtean sailkatuta hondakin guztien %33a besterik ez zen jaso. Oxelek arabera, edukiontzi berdearen edota nahasiaren garaia amaitu da, Europako aginduak direla eta.

Hauteskundeetan, alderdi bakoitza hondakin bilketa sistema batekin aurkeztu zen eta inguruko herrietan sortu ziren arazo eta eztabaidak ikusirik, ez zuten eztabaida hori Elgetan sortzerik nahi eta alderdi guztiek herritarrei proposamen bateratu bat aurkeztu zitzaizen, sisteman baino gehiago helburuetan zentratuz eztabaida. Herritarrei erabakitzeke aukera eman zitzaizen herri kontsulta baten bidez, udaletxeak proposaturiko sistemaren inguruan, parte hartzea %53,56koa izan zelarik eta proposamenaren aldeko bozken %86,89 lortu zen.

Lehen esan bezala, Elgetan hondakinen %33a besterik ez zen jasotzen sailkaturik eta egoera hori irauli eta %70-%80a gaika biltzera iritsi nahi dute.

Jarraian, edukiontzi berdeetan biltzen dutenaren karakterizazioak erakutsi zituen, hobetzeko margena handia dela azalduaz. Honako datuak adierazten dute kontenedore berdean jasotzen den hondakinaren osaera:

- Organikoa %46a
- Beira %10a
- Ontzi arinak %8a
- Papera eta kartoia %5a
- Bestelakoak %18a
- Errefusa %13a

Edukiontzia nahasian, bildutakoaren %13a besterik ez dela materia ez-birziklagarria ikusi zuten eta honako neurriak hartzea erabaki zuten:

- Hondakinik onena sortzen ez dena da lemapean iritzi kritikoa lantzea, tupper-en inguruko kanpaina bat bultzatu zuten erosketak egiterako orduan erabiltzeko.
- Bigarren neurria, hondakinik onena bertan kudeatu eta ongarri egiten dena da. Besteak beste konposta egitearen aldeko kanpainak aurrera eramanaz, gaur egun 172 famili daudelarik konposta egiten. Herri gunean bizi direnen artean konposta egiten dutenen artean, zabor tasei begiratzuz, %25ko hobaria daukate eta landa guneeetan bizi direnek aldiz %50.

Gaur egun planteatzen duten sistemarekin, hondakinak edukiontzia bidez bilduko dira.

8 ekarpen gune egongo dira, baina edukiontzia berdea kenduko dute eta organikoa eta errefusa biltzeko edukiontziak ipiniko dira txip bidez kontrolatuak, edozein egun eta orduetan ahalko delarik bota. Gainontzeko frakzioak gaur egun bezala bilduko dira. Organikoa eta errefusa astean 3 aldiz batuko dira.

Bideragarritasunaren inguruan, sistema berri honek honako gastuak izango dituela aurreikusten dute:

- Kamioien erosketa: 68.988€
- Bilketa gastuak: 46.339€
- Industriadeko bilketa gastuak: 36.936€
- Tratamenduaren gastuei erreparatuz aldiz, iaz tratamenduak 41.829 € balio izan zituen. Sistema berri honekin 25.656€ko aurrezte aurreikusten dute. Sistema defizitarioa izango dela argi dagoela azaltzen badu ere.

► **AZKOITIA ETA ZESTOA:**

Azkoitia eta Zestoa aurten martxan jarritako sistema mistoaren inguruan, Orkatx Goenaga Urola Erdiko mankomunitateko teknikaria aritu da hizketan.

Hasteko, Urola Erdiko mankomunitateari buruzko azalpenak eman zituen, zenbat herri osatzen duten azalduaz eta hasieran zituzten planak argituz. Hasiera batean, landa eremuan sortzen zen organiko guztia, landa eremuan bertan konpostatzea nahi zuten eta 2014. Urterako helburu hori betetzea espero dute eta bestetik, herri guneeetako sistemak aldatu nahi dituzte aurten ez bada 2015.urterako.

Jarraian aurrekariak azaldu zituen. 2013.urtean Azkoitian parte hartze prozesu bat jarri zuten martxan bilketa sistema erabakitzeko. Zestoa aldiz, 2013.urtean atez atekoa jartzeko saiakera bat egiten du udal taldeak baina udaleko oposizioak atez atekoa ez den beste edozein sistemaren inguruan eztabaidatzeko prestutasuna erakusten dio udal taldeari, atez ateko sistema martxan jartzea alde batera utziaz. Azkoitian, egungo sistema abian jartzeko erabakia 2014ko martxoan hartu zen eta urte bereko uztailean ipini zen martxan.

Landa eremuan, bilketa sistema ekarpen gune itxien bidez egiten da. Mankomunitateko herri gehienetan eraikin itxi batzuk egin badituzte ere, Azkoitian aldiz, edukiontzien kontrol sistema bat daukate baina organikoa ez da biltzen. Prozesu hori ordea, bukatu gabe dago eta 1.fasean organikoa biltzen bazaie ere, 2.fasean edukiontzi marroia kenduko da eta bakoitzak bere hondakin organikoak kudeatu beharko ditu.

Merkataritzaren kasuan, Azkoitian errefusa atez ate biltzen zaie eta sortzaile oso handiei ere organikoa atez ate biltzen zaie, kartoi komertzialak ere atez ate biltzen dira. Gainontzekoek 5.edukiontzia erabiltzen dutelarik. Zestoan aldiz, merkatariei dena atez ate biltzen zaie, beira kenduta.

Azkoitian, zintzilikarioak ipini dira astean behin errefusa biltzeko, kubo identifikatu batzuek. Organikoa aldiz, lehen 5.edukiontzia zegoen giltza mekaniko batez itxita, sarrera elektronikoa batez dago kontrolaturik. Gainontzeko frakzioak lehen bezala biltzen dira eta pardelak edukiontzi grisean biltzen dira. Orkatzen ustez gakoak, edukiontzi grisa zena, nahasia, kentzean egon da.

Zestoan, edukiontzi bidez, papera, beira, olioak, pilak eta olioak biltzen dira. Gainontzeko frakzioak aldiz, arratsaldeko 18:00tan portaleka kuboak ipintzen hasten dira eta 20:00tarako jarriak egoten dira. Egunero herritarrek, 20:00tatik 22:00tara hondakina botatzeko aukera izaten dute, hau da, egunero frakzio ezberdin bat. Fardelak dituztenek kubo bereziak izaten dituzte eta larunbata kenduta, ez delako bilketarik egiten, egunero biltzen zaizkie. Gaueko 00:00tarako ez da kuborik geratzen kalean.

Emaitzei dagokienean, Azkoitian, errefus kopurua bi heren gutxitu da eta organikoaren kopurua hirukoiztu egin zen uztailean eta boskoiztu abuztuko bilketan. Gaikako bilketa, abuztuan, %70,42ra iritsi da.

Zestoan aldiz, errefusak %76 batean egin du behera, papera eta kartoiak %36 batean igo da, ontzi arinak bikoiztu egin dira, beira %20a jaitsi da eta bereziak %80a egin du behera. Gaikako bilketa %74an dago eta autokonposta gehituko bagenu %82an.

Azkoitian dagoen arazoetako bat, inpropioak dira, hau da, biltzen denaren kalitatea ez dela egokia kasu guztietan; batzuek hondakinak nahasita botatzen dituela, nahiz eta edukiontzien txipa eduki.

Zestoan arazo hori agertu bada ere, presioak arazoa konpondu du eta badaezpada ere egunean behin kale garbiketarako buelta bat ematen da.

Zestoan erabiltzen duten presio neurria, pegatina bat izaten da, portal bateko kuboan hondakinak nahasita agertzen badira pegatina hori ipintzen da eta oso efektiboa da.

Emaitza ekonomikoari begiratuz, atez atekoaren eta sistema honen emaitzak antzekoak dira Zestoan eta estetikari begiratuz gero oso garbia da.

2 SISTEMA BAKOITZAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK:

Aurkezleek norbera bere herrian ezartzen ari diren sistemaren indargune eta ahulguneak kokatu zituzten.

Hona hemen bakoitzak emandako erantzunak:

	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
USURBIL (ATEZ ATE)	<ul style="list-style-type: none">• Kalitate eta kantitate aldetik berme gehien ematen duen sistema.• Herritarren adostasuna.	<ul style="list-style-type: none">• Sistemara egokitu nahi ez duenari konbentzitzeak lan asko eskatzen du.
AZKOITIA – ZESTOA (SISTEMA MIXTOA)	<ul style="list-style-type: none">• Nahasiko frakzioa atez ate biltzea.• Azkoitian, gaikako bilketa tasa asko igo da eta herritarrei aldaketa gutxi suposatu die.• Zestoan ere asko igo da gaikako bilketa tasa eta hobekuntzarako margena dago	<ul style="list-style-type: none">• Azkoitian, kalitate gutxi, organikoan nolabait konpondu bada ere. Gainera hobekuntzak lortzea zaila egiten da, kontrolatzea zaila delako.• Zestoan, pertsonalizaziorik ez dago, komunitarioa da.
ELGETA (EDUKIONTZI BETEBEHARREZKOA)	<ul style="list-style-type: none">• Herritarrek hondakin organikoak konpostatzearen alde harturiko jarrera.• Herritarren parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none">• Ikusi beharko da herritarrak egokitzen diren ala ez.
ORIO (5.EDUKIONTZIA)	<ul style="list-style-type: none">• Auzo-konpostak indarra dauka.	<ul style="list-style-type: none">• Kontzientziazio eskasa.

3 HERRITARREN AZTERKETA

Fase honetako saioetan herritarrek sistema desberdinak

Mahai-inguruan lau bilketa sistema ezagutzeko aukera egon zen, saioan hauetako 3 aztertu eta baloratu dituzte herritarrek.

Hiru sistema hauek, 4 frakzio nagusiak atez ate biltzen dituenak, edukiontzi derrigorrezko sistema eta sistema mixtoa, prozesu honen helburuetako batzuk bete ditzaketela ulertuta aukeratu dira. Hondakinen gaikako bilketa %60ko tasa bermatzen dutela ulertuta.

► 4 FRAKZIOAK ATEZ ATE

Hauek dira kokapen gisa partaideei eskainitako sistema honen ezaugarri nagusiak:

- FRAKZIO GUZTIAK ATEZ ATE BILTZEN DIRA
- BILKETA eta JARRAIPENA INDIVIDUALIZATUA DA (Familia bakoitzak jasotzen duenaren jarraipena dago)
- %75-%85 inguruko GAIKAKO SAILKATZE TASAK BERMATZEN DITU
- HONDAKINAK BILTZEKO ORDUTEGIA ETA EGUTEGI ZEHATZA DAGO (Egun bakoitzean frakzio bat jasotzen da eta ordutegi batekin)
- INBERTSIOA ALTUA HASIERAN (diru-sarrerekin amortizatzeko aukera)
- LANDA GUNEETAN EKARPEN GUNEA DAUDE
- LARRIALDI GUNEAK EXISTITZEN DIRA (Urgentziazko kasuetan egun horretan biltzen ez dagokion frakzioa jasotzeko aukera eskaintzen duena)
- AUZOKONPOSTA ETA AUTOKONPOSTA INDARTZEA (HOBARIAK)
- KOMERTZIOETAN BILKETA ATEZ ATE EGITEN DA

ALDAGAIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Gaikako bilketa	<ul style="list-style-type: none"> • Portzentaje oso altuak ematen ditu. • Ondo bereizteko aukera ematen du. • %100 birziklatzera gehien hurbiltzen da.Kontrolatua. • Derrigorrezkoa. • Ia-ia perfektua. • Auzo/auto konposta bultzatzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jendeak hondakinak beste herri batera eramango ditu. • Konpromiso altua eskatzen du. • Derrigorrezkoa. • Jendea kontrolatua sentituko da. • Intimitate falta.
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua	<ul style="list-style-type: none"> • Lanpostuak sortuko dira. • Etorkizun batean gastuak amortizatzen dira. • Kudeaketa herriak eramaten du. • Inpaktu ekonomiko gutxi dauka. • Tratamendua erraza da. • Zabor bilketa tasak behera egiten dute. • Etorkizunean merkeena da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hasieran inbertsio altua eskatzen du. • Bilketa garesti irteten da.
Egungo azpiegituren erabilera	<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egungo sistemarekin amaitzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema guztia berritu beharra.(hasieran gutxienez, gerora indar-gune bihurtu daiteke).
Herritarren egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientziak gora egingo du, lantzera eramaten duelako. • Konpromisoak gora. • Kontrol individualizatu duenez akatsak errez konponduko dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Modelo berdina herriaren zonalde guztietarako ezinezkoa da. • Egokitu beharra dago. • Ordutegian zorrotasuna.
Erosotasuna(ordutegia,...)	<ul style="list-style-type: none"> • Ordutegia adostu beharra dago. • Gertutasuna • Larrialdi guneak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hasieran ez da erosoia izango. • Ordutegi eta egutegia kaltegarri da. • Gertutasuna.
Erabiltzaileen erantzukizuna eta kontzientzia	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientziak gora egingo du. • Gaur egungo datuak hobetuko ditu. • Betebeharrezkoa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientzia eskasa dago. • Gezur asko zabaldu da sistema honen inguruan eta jendeari beldurra sartu zaio.

► **BETEBEHARREZKO EDUKIONTZI SISTEMA**

Hauek dira kokapen gisa partaideei eskainitako sistema honen ezaugarri nagusiak:

- HELBURUA GAIKAKO BILKETA %70tik GORAKO TASA IZATEA (GIPUZKOAN ORAINDIK EZARRI GABE DAGO)
- FRAKZIO GUZTIAK EDUKIONTZI BIDEZ BILTZEN DIRA
- FRAKZIO BATZUK TXIP BIDEZ KONTROLATUAK DAUDE (Organikoa eta errefusa normalean)
- KONTROLA TALDEKATUA DA (100-200 BIZTANLE ARTEKOA). Herritarrak giltza batekin ireki dezake kontenedorea baina irekiera kontrolak taldekatuak dira
- EGUN OSOAN BILTZEKO AUKERA ESKAINTZEN DUTE EDUKIONTZIEK
- HERRIAN ZEHAR EDUKIONTZI GUNE DESBERDINAK DAUDE
- INBERTSIOA: TXIPak ETA EDUKIONTZIAK
- AUZOKONPOSTA ETA AUTOKONPOSTA INDARTZEA (HOBARIAK)

ALDAGAIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Gaikako bilketa	<ul style="list-style-type: none"> • %70 tasa lorgarria baina bermerik ez oraindik, • Birziklatze tasa igotzeko aukera 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez birziklatzea ahalbidetzen du. Kontrol falta. • Neurri zuzentzailerik ez du. • Ez da ziurra, ez du bermatzen ezta %60a ere. • Edozein kontenedore kutsatzeko arriskua dakar (adb/ errefusa paperera bota)
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua	<ul style="list-style-type: none"> • Ondo eginez gero tratamendua merkeagoa da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hasierako inbertsioaren datuak ez dakizkitez. • Hipotetikoak dira • Amortizazioa ez da bermatzen, birziklapenaren araberakoa. • Gastu ekonomikoa dakar: 2 kontenedore, txipak,...
Egungo azpiegituren erabilera	<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egungo batzuk aprobetxatzen dira, papera eta ontzi arinak. 	
Herritarren egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> • Birziklatzen duenarentzat eroso. • Egokitzeko erraza da, etxean pote bat gehiago. • Inposatua ez bada, hobeto egingo du jendeak 	<ul style="list-style-type: none"> • Gaizki egiten duenarentzat, berdin jarraitzeko aukera ematen dio. • Librea izateak ez du bermatzen birziklatzea. Bermatzeko behartu behar da birziklatzera.
Erosotasuna(ordutegia,...)	<ul style="list-style-type: none"> • Ordutegi erosoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Egun osoan zakarrak edukiontzietan egotean usaia sortzen da. • Gaizki birziklatzen duenak ongi egiten duenari izorratzen dio.
Erabiltzaileen erantzukizuna kontzientzia	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema aldatzea kontzientziatzeko bidea da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientzian eraginik ez.

► **SISTEMA MIXTOA**

Hauek dira kokapen gisa partaideei eskainitako sistema honen ezaugarri nagusiak:

- %75TIK GORAKO BIRZIKLATZE TASA ESKAINTZEN DU batez beste
- FRAKZIO BATZUK EDUKIONTZI BIDEZ ETA BESTE BATZUK (ORGANIKOA EDOTA ERREFUSA) ATEZ ATE BILTZEN DIRA
- SISTEMA DESBERDINAK EGON DAITEZKE ATEZ ATE BILTZEN DIREN FRAKZIOAK JASOTZEKO: ZINTZILIKARIOA EDOTA ATARIETAN JASO
- PAPERERA ETA ONTZI ARINAK EDUKIONTZIA MANTENTZEN DA
- EDUKIONTZIEN ORDUTEGIA LIBREA IZANGO DA
- FRAKZIO KONTROLATUAK (Organikoa edota errefusa) BILTZEKO ORDUTEGI BAT DAGO
- INBERTSIOA HANDIA HASIERAN (diru-sarrerekin amortizatzeko aukera)
- LARRIALDI GUNEA DAUDE (FRAKZIO BEREZIETARAKO)
- AUZOKONPOSTA ETA AUTOKONPOSTA INDARTZEN DA (HOBARIAK)

ALDAGAIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Gaikako bilketa	<ul style="list-style-type: none"> • Organikoa eta errefusa guztia bilduko da. • Gehiago birziklatuko da. • Indibidualizatu da. • Gaizki egiteko aukera gutxi. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ontzi arinak, kartoia-papera eta beirak kontrolik ez dute izango eta gaizki egin liteke. • Erosotasun gutxiago. • Ondoko herritara hondakinak eramango dira. • Pañalak kontrolatu behar dira. • Inguruan ez dela ipintzen.
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua	<ul style="list-style-type: none"> • Bilketa merkeago egingo du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hasierako inbertsioa handia da.
Egungo azpiegituren erabilera	<ul style="list-style-type: none"> • Edukiontzi batzuk aprobetxatuko dira, inbertsio gutxiago egin beharko delarik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lurpeko edukiontziak ez aprobetxatzea.
Herritarren egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> • Birziklatzen dutenek gutxi egokitu beharko dute. • Inplikazioa handituko da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Birziklatzen ez duenarentzat aldaketa handia izango da. • Egungo sistema eta atez atekoaren arteko sistemara egokitzea.
Erosotasuna (ordutegiak ,...)	<ul style="list-style-type: none"> • Etxetik gertu badago. • Atez atekoak etxean bertan. • Beste frakzioak nahi duzunean bota dezakezu. • Ordutegien malgutasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> • Frakzio batzuk ordutegi mugatua daukate. • Erosotasuna. • Liosoa herritarrentzat. • Fede txarra duenari (birziklatzerakoan) gaizki egiteko aukerak eskaintzen dizkio • Kaxkoan atez ate jartzeko zailtasunak
Erabiltzaileen erantzukizuna eta kontzientzia	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientzia areagotuko da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Batzuk haserretuko dira.

4 SORTZAILE BEREZIEN AZTERKETA

Atal honetan hondakin sortzaile bereziek hiru sistemen inguruan egindako azterketa eta balorazioak aurkezten dira:

► 4 FRAKZIOAK ATEZ ATE

ALDAGAIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Gaikako bilketa	<ul style="list-style-type: none"> Birziklatze tasarik altuena eskaintzen du. Garbiena da. Asko birziklatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> Intimitate falta.
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua	<ul style="list-style-type: none"> Etorkizunean amortizatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> Hasieran inbertsio altua eskatzen du.
Egungo azpiegituren erabilera		<ul style="list-style-type: none"> Sistema guztia berritu beharra.
Herritarren egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> Egokitu ondoren ongi egingo da. 	<ul style="list-style-type: none"> Hasieran zaila
Erosotasuna(ordutegia,...)	<ul style="list-style-type: none"> Estetikoki garbiagoa da. Ondo erabilia garbia da. Usainik ez. 	<ul style="list-style-type: none"> Ordutegi mugatua Posteak estetikoki itsusiak dira.
Erabiltzaileen erantzukizuna eta kontzientzia	<ul style="list-style-type: none"> Akatsak erraz konponduko dira. 	

► BETEBEHARREZKO EDUKIONTZI SISTEMA

ALDAGAIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Gaikako bilketa	<ul style="list-style-type: none"> %70 tasa lorgarria baina bermerik ez oraindik, Birziklatze tasa igotzeko aukera 	<ul style="list-style-type: none"> Ez birziklatzea ahalbidetzen du. Kontrol falta. Neurri zuzentzailerik ez du. Ez da ziurra, ez du bermatzen ezta %60a ere. Edozein kontenedore kutsatzeko arriskua dakar (adb/ errefusa paperera bota)
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua	<ul style="list-style-type: none"> Ondo eginez gero tratamendua merkeagoa da. 	<ul style="list-style-type: none"> Hasierako inbertsioaren datuak ez dakizkitez. Hipotetikoak dira Amortizazioa ez da bermatzen, birziklapenaren arabera. Gastu ekonomikoa dakar: 2 kontenedore, txipak,...
Egungo azpiegituren erabilera	<ul style="list-style-type: none"> Gaur egungo batzuk aprobetxatzen dira, papera eta ontzi arinak. 	
Herritarren egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> Birziklatzen duenarentzat eroso. Egokitzeko erraza da, etxean pote bat gehiago. Inposatua ez bada, hobeto egingo du jendeak 	<ul style="list-style-type: none"> Gaizki egiten duenarentzat, berdin jarraitzeko aukera ematen dio. Librea izateak ez du bermatzen birziklatzea. Bermatzeko behartu behar da birziklatzera.
Erosotasuna (ordutegia,...)	<ul style="list-style-type: none"> Ordutegi erosoak. 	<ul style="list-style-type: none"> Egun osoan zakarrak edukiontzietan egotean usaia sortzen da. Gaizki birziklatzen duenak ongi egiten duenari izorratzen dio.
Erabiltzaileen erantzukizuna eta kontzientzia	<ul style="list-style-type: none"> Sistema aldatzea kontzientziatzeko bidea da. 	<ul style="list-style-type: none"> Kontzientzian eraginik ez.

► **SISTEMA MIXTOA**

ALDAGAIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Gaikako bilketa	<ul style="list-style-type: none"> • Portzentaje altua. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ordutegia frakzio batzuk ateratzeko.
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua		<ul style="list-style-type: none"> • Hasieran inpaktu ekonomikoa
Egungo azpiegituren erabilera	<ul style="list-style-type: none"> • Aldaketa gutxi. • Komunitarioa izatea ona. • Kontrolatua izatea ona. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erosotasun gutxi.
Herritarren egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> • Egokitu ondoren ondo. 	
Erosotasuna (ordutegiak ,...)	<ul style="list-style-type: none"> • Komodoa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lioa. Gauza bat bestera eta bestea bestera. • Kale estuetan atez ate frakzioak biltzea zaila.
Erabiltzaileen erantzukizuna eta kontzientzia	<ul style="list-style-type: none"> • Erraza. 	

5 ONDORIOAK

Atal honetan fase honetan landutako edukietatik ateratako hainbat ondorio biltzen dira:

► **PARTE HARTZERI DAGOKIONEZ**

Saioetan egondako parte hartzeari dagokionean eta egindako bi saioetak elkartutako herritar kopuruari erreparatuta, hainbat ondorio bildu daitezke dira.

Mahaingurua:

- Kopurua: 61 herritar. 30 emakume eta 31 gizon.

Herritarrekin egindako saio irekia:

- Parte hartzaile kopurua: 60 herritar. 33 emakume eta 27 gizon.

Hondakin sortzaile bereziekin egindako saio irekia:

- Parte hartzaile kopurua: 14 sortzaile berezi. 8 emakume eta 6 gizon.

Mahainguruko kopuruak mantendu da herritarrekin egindako saioan.

Parte hartzaile gehienak hasierako bileran parte hartu duten berdinak dira, saioan landutako edukiari dagokionean nabaritu den aspektua izanik.

Sortzaile bereziei dagokionez eta fase honetarako komunikazio lanetan egindako lanketa dela eta kopuruak igo dira.

► **GIROARI DAGOKIONEZ**

Saio honen edukiak sistema bakoitzaren azterketan sakontzen bilatzen zuen heinean ondorio batzuk antzeman dira:

- Herritarren jarrera lehiakorra (zein sistema den hobeagoa)
- Aldaketa datorrela barneratzen hasi dira
- Herri galdeketaren ikusmiran botatako iritziak jaso dira
- Sortzaile berezien bileran parte hartzaile batzuk erabakia hartuta dagoela ulertu dute eta aldaketa horretara nola egokituko diren sentsazioa zutela ematen zuen, HERRITARREK ERABAKIKO duten mezua indartu behar da.

► **EDUKIARI DAGOKIONEZ**

- Saillkapena eta erosotasunaren arteko orera bilaketan dago gakoa
- Inbertsio ekonomikoaren atala ahul samar ari da gelditzen, daturik ez dugu eskaini eta partaideek eskatzen dute
- Sortzaile berezien kasuan herritar batzuk prozesu honetan parte hartu duten lehenengo Saioa izan da eta kasu batzuetan kostatu izan da fase honetan planteatzen ari ginen eztabaidetara egokitzea.
- Sortzaile berezien bileran gaia eta sistemen inguruko informazio falta nabaritu da